



 **Autismo Bizkaia**
APNABI

2015_{EKO} MEMORIA



AURKIBIDEA

Aurkezpena	03 orr.
Sarrera	04 orr.
Organigrama. Zuzendaritza Batzordea	07 orr.
Plan Estrategikoa	09 orr.
Elkarteko Jarduerak	11 orr.
Eremuak eta Zerbitzuak	
Kontsulta Eremua	26 orr.
Hezkuntza Eremua	31 orr.
Eguneko Arreta Eremua	37 orr.
Etxebizitza Eremua	43 orr.
Familiei Laguntzeko, Aisialdiko Eta Denbora Libreko Eremua	48 orr.
Sustapen Soziolaboraleko Eremua (Entremanos)	53 orr.
Kudeaketa Eta Administrazioa	57 orr.
Prestakuntza, Parte-Hartzea eta Garapen Profesionala	59 orr.
APNABI kopurutan	67 orr.
Eskerrak	69 orr.

Presidentearen GUTUNA

APNABIk bere 35. urteurrena ospatu du Jardueren Memoria honen xede den 2015. urtean. Duela 35 urte, guraso batzuek aurre egin zieten autismo izeneko nahaste misteriotu batek beren bizitzara ekarritako zalantza, ziurgabetasun eta beldurrei. Garai latzak ziren, ilunak, erantzunik gabeko galderaz beteak. Eta familia bat bailiran, argitara atera zituzten beren ardurak, esperientziak bateratu zituzten, arriskuak partekatu zituzten, eta Elkartea bat osatu zuten. Horrela sortu zen APNABI, eta horrela irabazi zuten autismoaren aurkako lehen borroka.

Ni, eta, ni bezala beste asko, duela 35 urte APNABI sortu zuten guraso haien oinordekoak gara. Duela urte batzuk hartu zuten erronkari jarraipena emango diotenak. Eta harro egoteko moduan gaude. Une honetan 1.000 familiak osatzen dugu APNABI, eta 200dik gora profesional ditugu gure seme-alabak zaintzeko. Bizitza osoan laguntzen diogu autismoa duen pertsonari. Eta familiek hain berea duten espiritu horrek eraman gaitu aurrera, zailtasunak zailtasun, honaino iritsi arte. Jende askok lagundu digu bide horretan, eta erakunde askok azaldu digute beren babesa eta elkartasuna. Horiei denei esker, APNABIk baikortasunez begiratzen dio etorkizunari, badakigulako onena iristeko dagoela.



Mikel Pulgarín
Presidentea / Presidente

En 2015, año objeto de esta Memoria de Actividades, conmemoramos el 35 Aniversario de APNABI, los 35 años de cuando un grupo de padres y madres hicieron frente al desconcierto, a la incertidumbre y al miedo que se habían instalado en sus vidas por un misterioso trastorno, llamado autismo. Eran tiempos difíciles, oscuros, en los que las preguntas no tenían respuestas. Y como si de una familia se tratara, sacaron a la luz preocupaciones, pusieron en común experiencias, compartieron riesgos y se agruparon en una Asociación. Así nació APNABI, y así fue ganada la primera batalla contra el autismo.


Yo, y muchas otras personas como yo, somos herederos de aquellos padres y madres que fundaron APNABI hace 35 años. Somos los continuadores de aquel reto que emprendieron hace años. Y tenemos motivos para sentirnos muy orgullosos de ello. En APNABI somos en estos momentos 1.000 familias y contamos con más de 200 profesionales que garantizan la asistencia a nuestros hijos. Cubrimos y apoyamos todo el espectro de la vida de una persona con autismo. Y ha sido ese espíritu tan propio de las familias el que nos ha hecho avanzar, continuar a pesar de las dificultades y llegar hasta aquí. En ese camino nos han ayudado muchas personas y entidades que nos han mostrado su apoyo y solidaridad. Gracias a todas ellas en APNABI miramos el futuro con optimismo, conscientes de que lo mejor está por llegar.

SARRERA

Apnabi-Autismo Bizkaia

Apnabi-Autismo Bizkaia irabazi asmorik gabeko elkartea da, interes publikokotzat jotzen dena, eta autismoaren espektroko nahasteak (AEN) dituzten pertsonen eskubideen alde lan egiten duena. Kalitatezko erantzun integrala eta pertsonalizatua eskaintzen die pertsona horiei beren bizi-prozesu osoan zehar, helburu hauek betetzeko:

- AENa duten pertsonen eta beren familien bizi-kalitatea hobetzea.
- Garapen pertsonala eta gizarteratzea ahalbidetzea.
- AENa duten pertsonen beren ezaugarri eta beharrezkoen egokitutako erantzuna jasoko dutela bermatzea.



Definitzen gaituzten helburu, ikuspegi eta baloreak

Helburua

Autismoa eta Autismoaren Espektroko bestelako nahasteak dituzten pertsonen eta beren senitartekoen bizi-kalitatea hobetzea da gure xedea, eta horretarako bermatzen dugu arreta integrala, pertsonala eta kalitatezkoa emango diegula beren bizi-ziklo osoan zehar.

Ikuspegia

Erreferente izan nahi dugu autismoan eta autismoaren espektroko beste nahaste batzuen esparruan, honako hauen bidez:


- Bizi-kalitatea hobetzeko gauzatutako jardunbide egokiak.
- Pertsonen beharrianetara egokitutako arreta ereduak.
- Erantzun globala.
- Parte-hartze soziala.

Baloreak

Sinesten dugu pertsonetikiko, antolakundeetikiko eta gizartearekiko konpromiso etikoan.

- Aukera-berdintasuna eta gizarteratzea.
- Parte-hartzea, taldeko lana eta kontsentsua.
- Profesionaltasuna.
- Etengabeko prestakuntza.
- Bezeroarenganako orientazioa.
- Erantzukizuna eta lankidetzaren publikoa.
- Kudeaketa gardena.
- Etengabeko hobekuntza.

Jarduera printzipioak



Autismoaren Espektroko Nahasteak (AEN)

AENak garapen neurologikoaren nahasteak dira, hau da, nerbio-sistema zentralaren heltze prozesuarekin lotuta dauden funtzioen garapeneko nahasteak; haurtzaroan hasten dira, eta bilakaera desberdina izaten dute AEN bat duen pertsona bakoitzarengan.


Gaur egun ezagunak dira Autismoaren Espektroko Nahaste guztiek dituzten ezaugarriak, zeintzuk, funtsean, bat baitatoz autismoa definitzeko erabiltzen direnekin:

- Komunikazio arloko eta elkarreragin sozialeko berezitasunak hainbat ingurunetan, bai elkarrekikotasun sozialean, bai hitzezkoa ez den komunikazioan eta bai beren garapen-mailari dagozkion harremanetan.
- Jokaera, interes edo jardueren patroia murriztaileak edota errepikakorrak.

Adierazleak (gaitasun kognitiboak, ikaskuntza edo esperientzia...) aldatu egiten dira adinarekin.

Laguntza eta esku-hartze planak bizi-ziklo osoan zehar luzatzen dira, eboluzionatu egiten dute norbanakoak duen aurrerapenen arabera, eta bizi-kalitatea hobetzea dute helburu.

ORGANIGRAMA



Zuzendaritza Batzordea

Aurreko Zuzendaritza Batzordearen agintaldia 2015ean amaitu zen, eta orduan egin zen batzorde berri bat eratzekeo hauteskunde prozesua.

Hauek dira egungo Zuzendaritza Batzordeko kideak:

Presidente: Mikel Pulgarín Romero
 Presidenteordea: Begoña Álvarez de Miguel
 Idazkaria: Pedro Albuquerque Unzueta
 Diruzaina: Alberto Ruiz - Longarte Pérez

Kideak: Javier Lasa Ayala
 Marta Ziorraga Aparicio
 María del Carmen González García
 Inés González Román
 Itziar Olabarria Llona

APNABI Autismo Bizkaiak egin duen ibilbidea ezinezkoa izango zatekeen Elkartearen Zuzendaritza Batzordean beren borondatez lan egiten duten pertsonengatik izan ez balitz. Mila esker denei eskainitako denboragatik eta, bereziki, dagoeneko agintaldia bukatu dutenei:

M^a Cruz Hernández Díez
 M^a Ángeles Nieves Pinza
 Manuel Ibáñez de Aldekoa Eguileor



PLAN Estrategikoa

2012-2015eko Plan Estrategikoarekin bat etorritz, APNABI Autismo Bizkaia hainbat ekintza garatu ditu bi erronka handiren inguruan:

- 1. Erreferente izatea AEN bat duten pertsonen eta beren familiari ematen zaien erantzun-ereduan, ikuspegi etikotik abiatuta.**
- 2. Antolakundea lerrokatu eta egokitzea AEN bat duten pertsonen eta beren familien premiei erantzun eraginkorra emateko.**

Hona hemen epealdi honetako alderdi garrantzitsuenak:

Kanpoaldetik:

- Administrazioekiko harreman hurbila, lankidetzazkoa.
- proiektio soziala, 35. urteurreneko ospakizunek lagundurik, ekitaldi ugari antolatu baititugu horren harira: korporatiboak, prestakuntza arlokoak, sentsibilizazioa helburu zutenak, e.a.

Barnealdetik:

- Erakundeko eremu bakoitzak zegozkion ekintzak garatu ditu.
- Aurrera egin dugu antolakundea premia berrietara egokitzeko bidean.
- Antolakundearentzat funtsezkoak diren zenbait prozesu sendotu eta hasi ditugu.



Etengabe hobetzeko prozesu estrategikoak

Kalitatea

AENOREk eginiko jarraipenezko kanpo-ikuskaritza, UNE-EN-ISO 9001:2008 arauak ezarritako baldintzei jarraiki, 2015eko iraila. FEAPS Kalitatea. Akreditazio prozesuari ekin diogu 15 lagunekoa lantalde transbertsal batekin: familiak, profesionalak eta AEN bat duen erabiltzaile bat.

Aukera-berditasunerako 1. plana

Ekintza hauek garatu ditugu:

- Berdintasun-batzordea sortu eta mantentzea; batzorde horretan Erakundeko eremu guztietako ordezkariak biltzen dira.
- Berdintasun-diagnostikoa eta plana plantillari aurkeztea.
- Berdintasunari buruzko prestakuntza ematen hasia berdintasun-batzordeko kideei, zuzendaritzari eta koordinatzaileei.
- Sexu-jazarpeneko eta sexuagatiko jazarpeneko protokolo bat egitea.

Euskara plana

2008tik APNABI Autismo Bizkaia hirugarren sektoreko erakunde aitzindarietako bat da euskalduntzeari eta euskararen normalizazio prozesuari dagokionez. 2015ean ekintza hauek egin ditugu:

- Hizkuntza-politika.
- Prestakuntza.
- Errotulu elebidun eta irisgarriak.
- "Bidelaguntza" ekimena.
- APNABI Autismo Bizkaia erakundeko hiztegia.
- Ordenagailuan euskaraz lan egiteko baliabide informatikoen eskuliburua.
- Kaixo! buletina eta Euskararen Txokoa.

Gaitasun bidezko kudeaketa

Gaitasun bidezko kudeaketa-prozesuak bizirik darrai, eta erronka berriak ditu. Praktika komunitateen bitartez garatu dugu, eta profesionalak aktiboki parte hartu dute. 2015ean:


- AEN bat duten pertsonen laguntzeko hastapen-ikastaro bat abiatu dugu profesional berriak hautatu eta haiei harrera egiteko sisteman.
- Ebidentziak biltzeko formulario bat osatu dugu praktikan dauden profesionalentzat eta zerbitzu ez-egituratuetan hasi behar dutenentzat.
- Aldi-baterako profesionalak ebaluatzen tresna.
- Gaitasun arloko prestakuntza, ebaluatzaileak behatu eta ebaluatzea.

APNABI Autismo Bizkaiak balioa ematen die bere bazkideei: zerbitzuak, prestakuntza, informazioa eta elkarrenganako laguntza dira gure lanaren ardatzak.

Bazkidetutako familiak

Guztira, 91 familia berri sartu dira APNABI Autismo Bizkaia erakundean, 2015ean. Bazkide izateko proposamenen ia %100 gauzatu dira.

Bazkide diren familia-kopuruaren bilakaera




Lan soziala

Guztira, bazkidetutako familien 451 eskaera (informazioa, orientazioa eta baliabideen mobilizazioa) atenditu dira, horien barruan daudelarik familiei eta erabiltzaileei laguntzea beste zentro batzuekiko edo kanpoko zerbitzuekiko tramite eta kontsultetan. Askotariko laguntzak eman ditugu:

- Zerbitzu Sozial Komunitarioetako baliabideei buruzko infomazioa.
- Elkartearen baliabide propioei, prestazioei, txosten sozialei, eta abarrei buruzko galderak.
- Ezintasun ziurtagiriari eta Menpekotasun Legeari buruzko informazioa eta orientazioa.
- Zerbitzu juridikoko eskaeren inguruko tramiteak.
- Carmen Gandarias Fundazioaren laguntza programa.
- Caixa Proinfancia programaren laguntzak jaso dituzten familientzako tramite eta esku-hartzeak.
- Prestazio, pentsio edo bestelako baliabide ekonomikoen inguruko tramiteak.
- Arreta goiztiarrerako laguntzen tramitazioa eta orientazioa.
- Beste batzuk.

Aholkularitza juridikoa

2015ean zehar, familien 201 kontsulta atenditu ditu Aholkularitza Juridikoko Zerbitzuak. Hauek dira gehien eskatzen diren tramiteak: gaitasuna aldatzea, erreklamazio ekonomiko-administratiboak, menpekotasuna berrikustea, testamentuak eta herentziak.



Ohiko Batzar Orokorra

Elkarteko presidente Mikel Pulgarínek Ohiko Batzar Orokorrerako deia egin zien APNABI Autismo Bizkaiako bazkide guztiei 2015eko maiatzaren 20rako. Batzarrean indarreko Zuzendaritza-batzordea desegin eta berria eratzeko hauteskunde-prozesua zabaldu zen.

Hauteskunde-prozesua eta Zuzendaritza-batzorde berria

Hautagaitza bakarra aurkeztu zen datozen lau urteetan Zuzendaritza-batzordearen ardura hartzeko. Jarduneko presidente Mikel Pulgarínena izan zen hautagaitza hori eta uztailaren 3ko bozketaren bidez berretsi zen bere kargua.

“Autismoaren Ikerketa” jardunaldia. Hizlaria: Joaquín Fuentes Biggi doktorea

Uztailaren 3an “Autismoaren Ikerketa” hitzaldia eskaini zen Mondragon Unibertsitateko Ekitaldi-aretoan eta eserleku guztiak bete ziren (100 entzule). Joaquín Fuentes Biggi doktorea izan zen hizlaria, eta hizpide izan zituen mundu mailan autismoaren esparruan egin diren aurrerapenak eta ikerketa ildo berriak.

Familia berriei harrera egiteko prozesua

2015ean bi bilera egin genituen bazkide-tutako familia berrientzat. Lehena, 0-12 urte bitarteko haurrak dituzten familientzat (21 berta-ratu), eta bigarrena, 12 urtetik gorako gazteak dituzten familientzat (15 berta-ratu).

Autismoaren Kontzientziaziorako Munduko Eguna

Data esanguratsua da AEN bat duten pertsonen eskubideen alde-ko etengabeko aldarrikapen eta sentsibilizazio prozesuan. APNABI-ko familiekin modu ludiko eta parte-hartzailean partekatu zuten ospakizun hori, gizartean presente daudela erakusteko; batukadaren erritmora 1.000 puxika urdin askatu ziren Bilboko Areatzan. APNABIko haurrek ondoan izan zituzten elkarteko profesionalak eta erakun-deetako ordezkariak, besteak beste, hauek: Pilar Ardanza, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza diputatua; Sergio Murillo, Bizkaiko Foru Aldundiko Autonomia Pertsonala Sustatzeko eta Menpekotasunari Arreta Emateko zuzendari nagusia; eta Gorka Martínez, BBK Gizarte Ekintzako zuzendaria. Ezintasunekin lotutako beste kolektibo eta an-tolakunde sozial batzuek ere aktiboki parte hartu zuten ekitaldian.

Autismo España-ren Zuzendaritza Batzordea Bilbon

35. urteurrena dela eta, Autismo España-ren Zuzendaritza Batzor-deak Bilbon egin zuen bere batzarretako bat Miguel Ángel Casasen buruzagitzapean. Autismo España-ko Zuzendaritzako Batzordeko kideak APNABIko Zuzendaritza Batzordeko kideekin elkartu ziren, elkarrekin bisitatze-ko Autismo Bizkaia dauzkan baliabide eta zerbit-zuetako batzuk. APNABI fundatu zuen Autismo España erakundea, bertan parte hartzen du eta harreman estua du berarekin duela ha-markada batzuetatik.



35. urteurrena: ekitaldi nagusia

APNABI Autismo Bizkaia bere 35. urteurrena ospatu zuen apirilaren 30ean. Emozioz beteriko ospakizun trinkoa izan zen, eta 2.000 lagun inguru bildu ziren Bilboko Euskalduna Jauregiko auditorioan. Ekitaldi horrexekin itxi zen "35 urte elkarrekin eraikiz" lelopean garatu den jarduera-zikloa, zeinaren helburua izan baita gizarteari gogoraraztea konpromisoa mantendu behar duela autismoa duten pertsonentzat aukera-berdintasuna lortzeko.

APNABiko familiek ingurukoen berotasuna sentitu zuten ospakizunean, bertara bildu baitziren lagunak, profesionalak, FEVAS erakundeko kideak, Hirugarren Sektorea, ezgaitasunen munduko jendea eta elkarteen mugimendukoa, enpresa, sindikatu eta gizarte-, kultura- nahiz kirol-kolektiboetako arduradunak, unibertsitate, fundazio eta gobernuz kanpoko antolakundee-tako arduradunak, kontsul-etxeko ordezkariak, osasuneko, hezkuntzako, eta gizarte-laneko nahiz laguntza arloetako profesionalak, eta baita ere komunikabideetakoak. Haiekin batera, erakundeetako ordezkariak ere hurbildu ziren festara, besteak beste, Bizkaiko ahaldu nagusia, Bilboko alkatea, Enplegu eta Gizarte Politiken sailburua, Gizarte Ekintzako diputatua, Eudeleko presidentea, BBK-ko presidentea, alkateak eta udal korporazioetako kideak.

Mikel Pulgarínek zuzendu zuen ekitaldia, Pili Kaltzada eta Koldo Campo kazetariekin eta Garbiñe Marañonekin batera. APNABiko presidentek eskerrik beroenak eman zizkien hurbildutako guztiei, festara joateagatik eta Elkartearen 35 urteetan zehar jasotako elkartasunagatik eta laguntzagatik.





Presidentearen hitzek argi utzi zuten APNABI zorretan dagoela baita ere fundatu zuten gurasoekin. "Sinetsirik zeuden posible zela autismodun seme-alaben bizi-kalitatea hobetzea eta denborak erakutsi du arrazoi zutela. Gainera –esan zuen-, berdinaren arteko harremana planteatu zuten erakundeekin, alde batera utzita antzinako karitate eta ongintzako eskemak. Gaur, haien parean egon behar dugu –erantsi zuen-, eta elkarte sendo, indartsu, garden, berritzaile, parte-hartzaile eta solidarioa utzi behar diegu hurrengo belaunaldiei". Era berean, eskerrak eman zizkien APNABI-ko profesional guztiei. "Lantalde batua dira, diziplina anitzekoa, aditua, eta prestatuta daude esku-hartze eta baliabide gehien eskatzen dituen ezintasun bati aurre egiteko. Zalantzarik gabe, eurek bermatzen duten ongien gure seme-alaben bizi-kalitate gero eta hobea".

Ekitaldian zehar "APNABIren Laguna" diplomak entregatu zitzaizkien Elkarteari hazten lagundu dioten hainbat laguni: Iñigo Pombo, Rafael Mendía, Delfín Montero, Isabel Galende eta Rafael Armesto. Eta baita ere Elkarteari bere garapenean lagundu dioten enpresa eta erakunde zenbaiti: Gautena, Jesusen Bihotzaren Mirabeak Kongregazioa, Vicrila, Lanbide, ONCE Fundazioa, Bizkaiko Foru Aldundiko Su-hiltzaileak eta Arrigorriagako Udala.

Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak, Bilboko Udalak eta BBK-k ere aitortza jaso zuten APNABIren proiektuari laguntzeagatik.

Igor Yebra Dantza Eskolako neska-mutilek emanaldia eskaini zuten ekitaldian. Koreografia alai eta bikaina izan zen, bat zetorrena ekitaldi xamur eta hunkigarriarekin.



ELKARTEKO

Jarduerak

Artxandako VI. Igoera

APNABI Autismo Bizkaia protagonista izan zen El Correo egunkariak antolatzen duen Artxandako VI. Igoeran. APNABIk familiak jolas-eta kirol-jardunaldi batez gozatu zuten, eta herri-martxan parte hartu zuten 10.000 lagunekin batera. APNABIk eta Down Sindromearen Fundazioak osorik jaso zuten ekitaldiko izen-emateen bidez lortutako dirua. APNABIk asko eskertzen du El Correo egunkariak eta gainerako babesle eta kolaboratzaile guztiek izandako elkartasunezko keinua; ekarpen hori laguntza aparta da proiektuak garatzen jarraitzeko, baina, aldi berean, balio izan du autismoaren errealitatearen berri emateko Bizkaian.

AZERI Natura Guztiontzat elkarteak ere laguntza eskuzabala eskaini zigun, "Joelette" aulkia utzi baitzigun, mugikortasun murriztua duten pertsonen ere Artxanda mendirainoko ibilbidea egin zezaten familia eta lagunaren ondoan. Zalantzarik gabe, jardunaldi desberdina izan zen, solidarioa eta osasuntsua.

Gabonetako Loteria

APNABIk kideok Gabonetako loteriaren 16.000 partaidetza baino gehiago saldu ditugu aurten, 60.000 eurotik gora, alegia. Loteriaren salmentak ikusgarritasuna ematen digu gizartean, baina, horrez gain, 15.000 eurotik gorako irabaziak lortu ditugu. Gure jarduerak finantzatzeko erabiliko dugu diru hori.

Gabonetako jaia

400 lagun inguru, tartean APNABIk haurrak, familiak eta lagunak, bildu ziren abenduaren 19ko Gabonetako jaia ospatzeko. Belau-naldi arteko topaketa tradizional horretan aukera izan zen jarduera ludikoetan parte hartzeko, Olentzero ikusteko eta ordezkatu ezi-nezkoa den photocall-ean argazkiak egiteko. Hesirik gabeko jai bikaina, non denek izan baitzuten gozatzeko aukera, elkarte senti-mendua ere indartuz.





Familiei laguntzeko programak

Caixa Proinfancia programa

2008tik APNABI Autismo Bizkaiak lankidetzan dihardu Caritas Diocesana erakundearekin, Caixa Proinfancia programaren barruan. "La Caixa" Gizarte Ekintzaren ekimen bat da, pobrezia ekonomikoan eta kalteberatasun sozialean bizi diren haurrei zuzendua da-goena. Hona hemen programaren helburu nagusiak:

- Haurren, nerabearen eta bere familiaren gaitasunak garatzen laguntzea, beren gizarteratze-prozesua eta autonomia hobetzeko.
- Haurren eta nerabearen garapen soziala sustatzea familian, eskolan eta gizartearen.
- Gizarte-ekintzako eredu hezitzaile eta integral bat garatu eta inplementatzea, haurren eta beren familien gizarte eta hezkuntza arloko garapena hobetzeko.

APNABI Autismo Bizkaiak eskaintzen dituen laguntzekin familia horien aisialdi eta denbora libreko jarduerak estaltzen ditugu, udalekuak eta kanpaldiak antolatuz. Era berean, ondasun-txekeak eskaintzen dizkiegu oinarritzko premiak asetzeko. 2015ean 0 eta 16 urte bitarteko 46 adin txi-kikok jaso zuten programa horretako laguntza.

Caixa Proinfancia programan KOMETA SAREKO hainbat erakundek par-te hartzen dute.



Carmen Gandarias programa

Programa hau bazterkeria sozialeko arriskuan dauden adin txikikoen familiei zuzentzen zaie. Helburutzat du onuradunei laguntzea eta beren parte-hartzea sustatzea aisialdia hobetzeko eta familiaren atsedena sustatzeko programetan. 2015ean zehar 51 erabiltzailearen -gehienak 16 urtetik beherakoak- familiek jaso dute laguntza.

Proiektzio publikoa

APNABI Autismo Bizkaia da 2.0 inpaktu handieneko euskal erakundea Autismoaren eta ezintasunen esparruan, eta proiektzio gehien duenetako bat hirugarren sektorean.

Web eta bloga: 140.000 bisita 2015. urtean.

Facebook: 2.500 jarraitzailetik gora.

Twitter: 6.000 jarraitzaile

Youtube: 20.000 erreprodukzio inguru.



EREMUAK eta

ZERBITZUAK

Kontsulta
Eremua

KONTSULTA Eremua

Tratamendu espezializatu eta goiztiarrek aukera ematen diete AEN-a duten pertsoneri bilakaera ona izateko.

Bakarkako edo taldeko tratamenduek nahaste mota desberdinak lantzen dituzte: elkarreraginekoak, portaerakoak, komunikazioak, motrizitatekoak edo kognitiboak (sintomak medikazioz arintzen diren eta psikofarmakologikoki tratatzen diren kasuak barne).

Gure lanaren funtsezko zati bat da familiei **harrera egitea eta informazioa eta aholkularitza ematea**, eta baita ere hurrekin eta AENekin lan egiten duten profesionalak eta gizarte osoa **sentsibilizatzea**.


Ikerketan, garapenean eta berrikuntzan izandako gertakari garrantzitsuak.

- "Irudiak seinalatzen ikastea papera eta euskarri digitalak erabiliz, komunikazioa hobetzeko estrategia gisa".
- "Elkarrekin jolasten ikastea", 6 urtetik beherako neba-arrebeekin binaka jolasteko taldea.
- "Proiektu neuro-psikologikoa", funtzio exekutiboa optimizatzeko eta familiaren bizi-kalitatea hobetzeko.

Arreta orokorra

2015ean zehar arreta eman diegu 824 pertsona, familia, haur eta helduri (683 gizon eta 141 emakume), eta 13.491 esku-hartze egin ditugu guztira. Harrerarako eta aholkularitza jasotzeko lehen elkarrizketak ugaritu egin dira, eta arretaren intentsitatea ere handiagoa da.

Kide berrien eta itzulitakoen adina 2014 eta 2015



Programa klinikoa

AEN bat duten edo izan lezaketen haur eta gazteen (0-18 urte) osasun mentalari arreta emateko programa Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailarekin sinatutako hitzarmen batekin lotuta dago. Helduei eta beren familiei arreta ematean, aholkularitza, laguntza eta orientazioa ematen diegu AENaren diagnostikoa baieztatzeko, eta baita ere bizitzan eman daitezkeen bestelako egoeretarako.


Arreta psikologikoa – Tratamendu modalitateak

	Gizonak	Emakumeak
Bakarkako arreta: 579	495	84
Taldeko arreta: 89	80	9

Arreta farmakologikoa (Sexuaren arabera)

	Gizonak	Emakumeak
Atención farmacológica: 162	139	23

Arreta farmakologikoa (Adinaren arabera). Ehunekoak



Arreta goiztiarra emateko Goiz programa

Zerbitzu hau jaso dezakete komunikazio-, sozializazio- eta jolas-nahasteak dituzten haurrek, AEN diagnostikatu bat dutenek edo AEN bat izan lezaketenek.

Pertsona berrientzako eskaerak	31
3 urtetik beherako haurrak	8
3 urtetik gorako haurrak	23

Mutikoak Neskatoak		
Arreta goiztiarra: 79	71	8

Komunikazio- eta sozializazio-taldeak AEN bat duten 3-6 urte bitarteko haurrentzat

2015. urtean 29 pertsonari eman diegu arreta (23 mutiko eta 6 neskato) hamabostean behin biltzen diren 6 talde desberdinetan. Adin oso goiztiarreko haurrekin egiten ditugu taldeak, 3-4 urtetik hasi eta 6 urtera bitartekoekin.



EREMUAK eta

ZERBITZUAK

Hezkuntza Eremua

HEZKUNTZA Eremua

 **Autismo Bizkaia**
APNABI

Hauek dira Aldamiz Eskolako metodologiaren giltzarriak: modu espezifikoagoan erantzutea, bizitzan beren kabuz moldatzeko ikas-kuntza funtzionalak barneratu ditzaten, giro egituratu batean, eta proiektuak eta jarduera tailerrak baliatzen dituen metodologia baten bidez. Aldamiz Eskola autismoa duten ikasleei eskaintzen diegun aukera bat da Eskola-ibilbidearen barruan. Hezkuntza-prozesuaren une zehatz batean iristen dira Aldamiz zentrora, eskola-testuinguru arruntetan ibilbide bat egin ondoren.



HEZKUNTZA

Eremua

Nabarmentzekoak

- **Irakurketa errazeko kluba** sortu dugu.
- **Jarduera inklusiboak** (Musika tailerrak Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin (EOS), FEVAS erakundearen programa baten bidez; unitate didaktikoak prestatzea Ertzaintzarekin; Segurtasun Sailburuarekin izandako topaketa, besteak beste).
- **Elkartearen jarduerak eta kultur-jarduerak** (Dantzari Eguneko eta Euskararen eguneko ospakizunak eta ate irekien jardunaldia eskolan; Saioa eta Jone, Athleticeko emakumeen taldeko jokalariek parte hartu zuten festan).
- Comenius programako **profesionalak etorri ziren**, eta gure hezkuntza-eredua aurkeztu genien.
- **Jardunbide Egokien taldea.**
- **Praktikak tutorizatzeko taldea.**
- **Agenda 21 taldea.**
- **Informatika hezkuntza eremuan.**





EREMUAK eta

ZERBITZUAK

Eguneko Arreta Eremua

EGUNEKO

Arreta Eremua

Eguneko Arreta Eremuak zerbitzu polibalentea ematen du, eta irekirik dago AEN bat duten eta eskola bukatu duten guztientzat, edozein dela ere beren ezintasun-gradua, adina edo lan-egoera. Eremu honek helburutzat du pertsona horien bizi-kalitatea hobetzea, eta horretarako ematen dizkiegu beren garapen indibiduala sustatzeko laguntzak eta estrategiak.

Nabarmentzekoak

- Gorputza lantzea eta bakarkako fisioterapia tratamenduak.
- Eremuez harago, pertsonengan zentratuko diren bakarkako laguntza-planak garatzeko sistema bat definitzeko pilotatze-lana. Eremu desberdinetako profesionalak (EAZ, okupazionala, denbora libre, etxeak) parte hartu dute prozesu horretan.
- Lankidetza Ikea dendarekin; saldu ezin diren landareak bildu genituen, berreskuratzeko edo composta egiteko erabiltzeko. Lankidetza boluntariorako antolakundeekin (Elikagaien Bankua, Animalien Babeslea, Intermon Oxfman eta Hasi Berrero), AEN bat duten pertsonak halakoetan parte har dezaten.
- Blas de Otero EAZeko liburutegiaren proiektua.
- Kirol egokitua: hipika, esku-pilotako esperientzia Federazioaren laguntzarekin.
- “Apnabi bus” proiektu esperimentala jarri da martxan. AEN duten pertsona batzuen ekimena sustatzen du eta ekimen horren helburua da beste erabiltzaile batzuk garraiatzea beren jarduerak garatzen dituzten tokietaraino.
- Gozogintzako proiektua.
 - Produktuak eskaintzen dizkiete erakundeko beste zentro eta zerbitzu batzuei, eta baita ere familiei.
 - “GozogintzaonEgin” weba sortzea, non katalogo batean aurkezten baitituzte gozogintzako produktuak, eskaintzak, eta tarta bat egiteko tutorialak.
 - “Master Class”: AEN duten pertsonak gozogintza irakasten diete beste EAZ batzuetako erabiltzaileei.
- Adierazpen artistikorako espazio bat sortzea.
- Eremuko bi lagunek FEVASen eta Bilboko Orkestra Sinfonikoaren “Soinu Mosaikoa” proiektuan parte hartu zuten.
- Lantalde transbertsal hauek mantendu eta dinamizatu dira: Prestakuntza, Kirol Egokitua eta Eremuan teknologia berriak (tabletak) erabiltzeko taldea.

Eguneko Arreta Zentroak 2015ean

2015ean zazpi pertsonak eskatu dute plaza Eremu honetarako, guztiak Hezkuntza Eremutik iritsiak. Era berean, bajak (bi) estali ditugu BFAk eta Hezkuntza Eremuak deribatutako pertsona banarekin. Ondorioz, urtea ixtean, 165 erabiltzaile genituen guztira".

Zentro berrientzako zuzkidura prozesuetan kontuan hartzen ditugu gizarteratze eta berdintasun printzipioetan oinarritutako ingurune naturaletako laguntzak, eta behar diren egokitzapenak egiten dira erabiltzailearen premiei egokitzeko.

Orientazio- eta Jarraipen-programa

Programa honen helburua da erabiltzaileek garapen pertsonal eta sozialerako behar dituzten laguntzak, baliabideak eta estrategiak aurreikustea eskola amaitu eta helduarora sartzen direnean.

Horretarako, **premien taldeak** urrats hauek eman ditu 2015ean:

- 7 plaza berri hitzartu ditugu Eguneko Arreta Eremuan, eskaerari erantzun ahal izateko. Plaza horiek betetzean kontuan hartzen dira:

- Eskola-etapa bukatua izatea.
- Adina eta zentroaren egokitasuna.
- Foru Aldundiak eskatutako plazak onartzea.

- Sektorizazio-irizpidea mantentzea, hau da, pertsonak beren ingurutik hurbilen dauden zentroetara eramatea. Horretarako, etengabe bilatzen dira lokal berriak beste herri batzuetan, AEN bat duten helduak beren etxetik ahalik eta hurbilen egon daitezen.

- Bi plaza Azlan Zentro Okupazionalera bideratu dira.

- Jarraipena: 2016ra begira, aurreikusi dugu 18 lagun sartuko direla, gaur egun oraindik eskolatze-prozesuan daudenak. 25 urtetik gorako pertsonen datuak etengabe eguneratzen ditugu, haien jarraipena optimizatzeko. Aurten 118 kasuren jarraipena egin dugu.





EREMUAK eta

ZERBITZUAK

Etxebizitza Eremua

ETXEBIZITZA Eremua

APNABI Autismo Bizkaiak etxebizitza komunitarioko ereduaren aldeko apustua egin du. Eredu horrek laguntza pertsonal eta sozial indibidualizatua eskaintzen du, funtsezko premiei, interesei eta desio pertsonalei erantzuteko eta, horrela, bizi-kalitatea hobetzeko.



Nabarmentzekoak

- Maiatzean APNABlren **bi etxe berri** ireki genituen Gueñesen, eta 9 lagunek beren bizi-zikloko etapa berri bati ekin diote bertan. Etxe horiek zabaldu direnez, profesionalentzako deialdi bat egin dugu; 7 pertsona kontratatu ditugu eta 3 koordinatzaile egonkortu.
- Eremuez harago, **pertsonengan zentratuko bakarkako laguntza-planak** garatzeko sistema definitzeko pilotatze-lana egin dugu. Eremu desberdinetako profesionalak (EAZ, okupazionala, denbora librea, etxeak) parte hartu dute prozesu horretan.
- **Bizitza erdi-independenterako entrenamendu** programa (bigarren urtez Eusko Jaurlaritzak diruz lagundua). Proiektu hau garatzeko talde transbertsal bat sortu dugu erakundearen barruan, prestakuntza-materialaren zati bat irakurketa errazera egokitzeko. FEVAS erakundeak laguntza eman digu lantaldearen prozesu koordinaturako.
- **Aisialdi inklusiborako** aukerak ahalbidetzea eta sortzea ekintza hauen bidez:
 - Komunitatean parte hartzea egunero: erosketak, liburutegiak, zentro zibikoak eta kiroldegia erabiltzea...
 - Bilbao Kirolak kirol egokituko jardueretan parte hartzea.
 - Baliabide komunitarioak erabiltzea: Zallako pilota eskola, herri desberdinetako kiroldegia, Uribe Kostako futbol kluba.
 - Pintxo-pote jarduerak: etxe desberdinetako egoiliarak astean behin gelditzen dira Bilbon, gastronomiaz gozatzeko.
 - "Mini-opor" jarduerak, asteburuko irtenaldi eta guzti. Egoiliarrek puntu hauek aukeratu dituzte aurten:
 - Goikoa: asteburuko 3 irtenaldi 4 parte-hartzaileekin Luena eta Santillana del Mar (Kantabria) eta Cangas de Onis (Asturias) herrietara.
 - Aretxabaleta: asteburuko irtenaldi bat Ribadesellara (Asturias).
- Etxebizitza Eremuko **profesional berrientzako harrera dokumentu berria** egin dugu, bertan sartu ditugularik esku-hartze profil desberdinen eskumenak definitzeko prozesuaren aurrerapen guztiak.
- Etxebizitza Eremuko Harrera Taldea: bere helburua da gogoeta egitea ordezkapenak egiten dituzten profesionalen harrera eta jarraipena egitearen balioari buruz.



Eskaera Kopurua	Eskaera Mota	Erantzuna	
47	10 eskaera (plaza finkoak)	Itxaron-zerrenda: 8	
	37 eskaera (aldi-bateko plazak) (24 atsedenagatik eta 13 presazkoak)	Plaza esleitu dira: 27 6 ukatu egin dira, bati uko egin zaio eta 1 esleitzeko dago	Esleipenaren Tokia IFAS (Zubiete) 11GORABIDE (La Ola) 16



EREMUAK eta
ZERBITZUAK

Familiei Laguntzeko,
Aisialdiko eta
Denbora Libreko
Eremua

FAMILIEI

Laguntzeko, Aisialdiko eta Denbora Libreko Eremua

2015eko azken hiruhilekoan lehen urratsak eman genituen Aisialdi eta Denbora Libre eta Familiei laguntzeko Programa Eremua bitan bereizteko. Batzorde bat sortu genuen prozesua jarraitu eta ebaluatzeko. Uztailetik aurrera gizarte-lana Familiei laguntzeko Programen Eremuan txertatuko dugu, Eremu osoak hazteko eta garatzeko behar dituen tresnak izan ditzan.

Familiei laguntzeko Programak

Familiei laguntzeko Eremuaren helburua da laguntza ematea bizi-ziklo osoan zehar, zaintzaileari seme-alabaren zaintzak sortzen dion zama arintzeko. Asmoa da zaintzaileak gainkarga edo estres gutxiago jasan dezala, bere osasuna kaltetu ez dadin. Horrela, arreta jasotzen duen pertsonak bere ohiko bizilekuan eta ingurunean bizitzen jarrai dezake.

2015 Familiei Laguntza	Familia eskatzaileak	Arreta jaso duten familiak	Jasotako eskaerak	Arreta jaso duten eskaerak
Familientzako Arnasaldiak	131	126	1.209	853
Udaleku Irekiak	57	47	121	92
Laguntzak	60	58		

Aisialdi eta Denbora Libreko Programak

Aisialdi eta Denbora Libreko Eremuaren helburu nagusia da pertsonak entretenitzea eta beren aisialdia bultzatzea. Garapen pertsonal eta sozialerako aberasgarria den denbora libre sustatzen du bizi-ziklo osoan zehar. Baliabideak eta laguntza ematen dizkie AEN bat duten pertsonen, aukera izan dezaten bakarkako aisialdirako edo aisialdi partekaturako eskubidea erabiltzeko komunitateko gainerako pertsona guztiek bezala, ahalik eta modu autonomoenean eta gizarteratzea sustatuz.

Nabarmentzekoak

- 3 udaleku txanda egin genituen abuztuan, Ovida (Asturias) herriko aterpetxean. Instalazioak guztiz egokituta daude, azpiegitura berria dauka eta aisialdi inklusiborako baliabide ugari eskaintzen ditu.
- Mail Art erakusketa Madrileko Correos zentrolean. Autismo España erakundearen laguntzarekin, urrian ikusgai egon ziren APNABI-ko neska-mutilek egindako artelanak.

2015 Aisialdia eta Denbora Libre	Familia eskatzaileak	Arreta jaso duten familiak	Jasotako eskaerak	Arreta jaso duten eskaerak
GAITASUN SOZIALEN KLUBA	13	13	13	13
DURANGOKO KLUBA	11	8	11	8
AISIALDI BALIABIDEEN ZENTROA	50	46	50	46
UDAKO UDALEKUA	181	172	540	197
EGUNEKO IRTEERAK	83	81	309	219
MENDI-IBILIAK	61	57	222	131
GIMNASIA	6	6	6	6
KIROL ANITZAK	6	6	6	6
BALIABIDE KOMUNITARIOAK	12	11	13	12
IMSERO	30	30	30	30
UDALEKUAK	12	12	12	12

Giza-baliabideak

- 5 profesionaleko talde egonkorra: 4 emakume eta gizon 1.
- 176 profesionaleko aldi-bateko taldea: 123 emakume eta 53 gizon.
- 16 boluntario: 15 emakume eta gizon 1.



EREMUAK eta

ZERBITZUAK

sustapen
sozialaboraleko
Eremua
(Entremanos)

Eremuko zentro eta programek laguntzak eta estrategiak ematen dituzte erabiltzaileentzat, ingurune desberdinetan integratu daitezzen (lana, hezkuntza, eremu okupazionala eta soziala). Horretarako, kontuan hartzen ditugu pertsonen garapen indibiduala, interesak, ongizatea eta parte-hartze aktiboa.



SUSTAPEN Soziolaboraleko Eremua

Nabarmentzekoak

- Laneratze proiektuak: prestakuntza okupazionala. Hirugarren urtez jarraian 10 lagunek prestakuntza jaso dute merkataritzako laguntzaile izateko, eta praktikak egin dituzte enpresa arruntetan (IKEA, C&A, KIABI...).
- Oposaketa ikastaroetan parte har dezaten sustatzea, esaterako, Bizkaiko Estatu-Administrazioan funtzionario plaza huts bat betetzeko egin zena. AEN bat duten 10 lagunek parte hartu zuten prozesuan, eta gure laguntza izan zuten, bai lehiaketa prestatzeko eta bai Madrilera joan eta azterketak egiteko.
- Enplegu foroetan laguntzea eta parte hartzea. 2015ean EHLABEn sartu zen Eremua, Euskadiko enplegu bereziko zentrozen elkartean.
- Erakundeko pertsona batek gosari bat izan zuen Urkullu lehendakariarekin, AEN bat duten pertsonen enplegarritasunaren inguruan ditugun kezkak azaltzeko.
- Hitzarmen berriak sinatu ditugu erakunde garrantzitsuekin (Correos adibidez); 150etik gora enpresa bisitatu ditugu eta sensibilizazio-lana egin dugu AEN bat duten pertsonak kontratatzeko.
- La Caixa Gizarte-Ekintzak ENTREMANOSen orientaziorako eta laneratze bi prestakuntza-programa finantzatzen lagunduko du 2015ean eta 2016an.



“ZAZPI JATETXEA” Enplegu Zentro Berezia

Menuak guztira	Eguneko menuak batez beste	Ekitaldiak	Ekitaldietako nahaikideak
11.099	58,11	76	3.395

“EGONAHÍ” Laguntzadun Enplegu Programa

Enpresa	Kontratuaren iraupena	Gizonak	Emakumeak
Osakidetza	Funtzionarioa	1	
Garbidena	Mugagabea	1	
Euskalcorreo	Mugagabea	1	
La Tienda de Anita	Mugagabea	1	
Supermercado Simply	Mugagabea	1	
Residencia Usansolo	Urte 1		1
Primark	Urte 1		1
Perfumerías If	6 Hilabete		1
Perfumerías If	6 Hilabete	1	
Correos	Urte 1	1	
Guztira		7	3

EREMUAK eta

ZERBITZUAK

Kudeaketa eta Administrazioa

KUDEAKETA eta Administrazioa

Egonkortasun ekonomikoa da APNABI Autismo Bizkaiaaren helburu nagusietako bat. Horretarako, saiatzen gara administrazio publikoekin sinatuta dauzkagun hitzarmen eta itunak sendotzen. Hornitzaileen kudeaketa eraginkorra egiten dugu eta, horri esker, erabilpen baldintza bikainetan daude gure lokalak, instalazioak, komunikazioak eta zerbitzuak, erabiltzaile eta langile guztiek kalitate gorena jaso dezaten.

Arrakasta handia izan du lan-poltsen (2015ean eguneratu ziren) bidez langileak aukeratu eta erreklutatze politikak. 200dik gora lagunek lan egin dute APNABIn 2015ean eta 3.000 kontratu baino gehiago kudeatu ditugu.

APNABIk teknologia eta komunikabide berriak erabiltzen ditu: web orria, bloga, txata, buletinak... baina horrek ez du murriztu bazkide guztiekin posta arruntaren bidez daukagun kontaktu pertsonala.

Garraio programa egonkortu egin da kontratatutako begirale laguntzaileei esker, eta berregituratu egin dugu ibilbideak optimizatzeko (**garraio-linea eta 38 profesional**). **200 lagun** inguru eramán ditugu haien etxeetatik APNABiko beren arreta-zentro-ra (etxebizitzak, eskolak, eguneko arreta zentroak).



PRESTAKUNTZA

Parte-Hartzea eta Garapen Profesionala

Prestakuntza

Prestakuntzaren balio garrantzitsuena profesionalen gaikuntza eguneratzea eta hobetzea da, eguneratze eta hobekuntza horren bidez hobeto egingo dutelako beren lana eta gure zerbitzuen kalitatea hobetuko delako. Konpromiso handia da, berekin baitakar gaitasun profesionalak hobetzea, eta AEN bat duten pertsonen nahiz beren familien, antolakundearen eta gizartearen premiei eta eskaerei etengabe egokitzea.

2015ean, APNABI 2015-2018 Prestakuntza-Premien Diagnostikoan oinarritu gara prestakuntza planifikatzeko. Txosten horretan, kon-tuan izan dugu APNABIko profil profesionalen gaitasunen definizioa.



Barne-ikastaroak, 2015. (*) Bertaratutako guztien kopurua.

Barne-ikastaroak	Gizonen o.	Emakumeen o.	Orduak guztira	Nº H	Nº M	Nº
Apnabinet	10	30	40	2	7	9
APNABIko datu baseari buruzko ikastaroa - Prestakuntza	2	7	9	3	8	11
Auto-kontzientzia, auto-garapena eta kontrol emozionala	103	376,5	479,5	12	38	50
FEAPS kalitatea Hobekuntza Plana	12	54	66	3	11	14
FEAPS kalitate eredua	6	48	54	1	8	9
Mapa de competencias	16,5	22	38,5	3	4	7
Hautatzeko elkarizketa/APNABIko gaitasunen arabera ebaluaketa	42	66	108	7	11	18
APNABIko gaitasunen arabera jarraipena eta behaketa	36	84	120	6	15	21
Emakume eta gizonen arteko aukera berdintasunari buruzko prestakuntza	49,5	112,5	162	7	15	22
Office 2003tik Office 2010erako migrazioa	17,5	101,5	119	7	17	24
Gure praktika: erreflexion etika	66	144	210	16	35	51
Lehen laguntzak - gaztelaniaz	50	80	130	6	17	23
Lehen laguntzak - euskaraz	40	50	90	5	7	12
Rol profesionalak: oinarritzko esku-hartzea familiekin	75	247,5	322,5	11	36	47
Sexualitatea eta ezintasuna	60	190	250	6	19	25
Teoriko-praktikoa: ikasi prestakuntzako hobariak tramitatzen Tripartita fundazioren arabera		13	13	0	1	1
Guztira	585,5	1.626	2.211,5	95	253	348

Euskara ikastaroak	Gizonen o.	Emakumeen o.	Orduak guztira	Nº H	Nº M	Nº
Tele-prestakuntza	282	643	925	2	4	6
MintzaPraktika	170	193	363	10	15	25
EUSKALTEGIA	510	1.238	1.200	4	13	17
Beste zentro homologatu batzuk					3	3

PRESTAKUNTZA

Parte-Hartzea eta Garapen Profesionala

Kanpo-ikastaroetan

Kanpo-ikastaroetan 63 profesionalak (55 emakume eta 8 gizon) parte hartu dute 2015ean.

- Nola sortu konfiantza familiekin / FEVAS.
- Ezintasunak dituzten familien gehiegizko ahalegin ekonomikoa / FEVAS.
- Familien konfiantza / FEVAS.
- Lana testuinguru errealean / FEVAS.
- Bizi-kalitatearen eskalak: neurtu hobetzeko / FEVAS.
- Agenda 21 / Ceida.
- Geo-aniztasuna / Ceida.
- Teknologia berrien inpaktua ikasteko zailtasunak dituzten ikasleengan / Prest-gara / Eusko Jaurlaritza.
- Bio-aniztasuna. / Prest-gara / Eusko Jaurlaritza.
- Hezkuntza WhatsApp-aren aroan. / Prest-gara / Eusko Jaurlaritza.
- Gaitasun digitala hezkuntza irekiaren markoan / Prest-gara / Eusko Jaurlaritza.
- Komunikaziorako sistema handigarriak. / Prest-gara / Eusko Jaurlaritza.
- Hezkuntza fisikoa ezintasunak dituzten ikasleekin / Prest-gara / Eusko Jaurlaritza.
- Autismoa diagnostikatzeko ados-2 probaren eguneratzea / Ediciones TEA Madrid.
- Arreta goiztiarra / Down Sindromea Fundazioa.
- Kognizio soziala (dimentsio anitzeko lanketa) / Deustuko Unibertsitatea.
- Euskadiko lehenengo Topaketa soziosanitarioa / TEL Euskadi elkarte.
- Lengoiaren nahaste espezifikoak – TEL Euskadi elkarte.
- Euskalit.
- Mondragon Unibertsitatea.
- Arreta goiztiarra hobetuz / FEAPS Madrid.
- Jarrera arazoak dituzten pertsonentzako zerbitzuen diseinua Galesen.
- Informatika.
- Painne.
- Eskulanak.



Talde eta Batzordeetan parte hartzea

Antolakundeko lantalde transbertsalak

- Irakurketa errazeko materialen taldea.
- Gaitasunak ebaluatzeko tresnaren diseinu-taldea.
- APNABiko harrerari buruz gogoeta egiteko taldea.
- Euskara Batzordea.
- Berdintasun plana.
- AEN duten pertsonen laguntzeko hastapen-ikastaroa.
- Pertsonen bizitzarako planak sortzen erakusteko Plangintza-metodologia ezartzeko taldea.

Kanpoko bilerak eta foroak

- Lanean jarraitzen dugu FEVAS Plena Inclusión erakundearekin hezkuntza esparruan.
- Estatu mailako bilerak egin ditugu Plena Inclusión erakundean (lehen FEAPS zena) eta ikastetxe espezifikoaren eraldaketa prozesua lideratu dugu.
- Pilotatze-jarduera bat garatu dugu bizitzarako planak ezartzeko, pertsonengan zentratutako plangintza-metodologia baten bidez. Eguneko arreta zentroak, zentro okupazionala, aisialdi eta denbora libreko zerbitzuak edo etxebizitzak erabiltzen dituzten pertsonen egin dugu pilotatze-jarduera hori.
- Lantalde transbertsal bat sortu dugu erakundean, Bizitza independenterako entrenamenduaren zati bat irakurketa errazera ego-kitzeko.
- Aisialdi eta Denbora Libreko batzordea FEVASen.
- Familia batzordea FEVASen.
- Boluntarioen batzordea FEVASen
- FEVASeko eguneko zentroen batzordean parte hartu dugu.

Ezagutza partekatua

2015eko Kongresuak eta Jardunaldiak

- Ezintasunari buruzko ikerketaren nazioarteko IX. jardunaldizientifikoak. Frogetan oinarritutako praktika profesionalak eta antolakuntzak. INICO. Hitzaldia eta poster baten aurkezpena.
- Hezkuntza inklusiboko jardunaldiak Valentzian. CEFIRE TORRENT.
- Hezkuntza inklusiboko jardunaldia GAZTELA eta LEONGO FEAPS-en.
- Irakurketa errazeko jardunaldiak Alondégian, esperientzia-mahaiaren koordinazioa.
- Bigarren Hezkuntzari buruzko ikerketa-jardunaldia diseinatu eta antolatu genuen, eta bertan parte hartu ere bai (FEVAS-DEUSTO).
- Hizlari gisa parte hartu genuen Deustuko Unibertsitateko Aisialdi Jardunaldian.
- Lankidetzat UPV/EHUrekin "Hezkuntza sozialeko jardunbide egokiak eta profesionalen hasierako prestakuntzan duten proiektzioa" ikastaroan.

Gizartearen sentsibilizazioa eta parte-hartzea

Elkar-teari buruzko sentsibilizazio- eta informazio-hitzaldiak

- Prestakuntza klustroetan, berritzeguneek hala eskatuta: Iurretan, Errontegin, San José Eskolan (Basauri) eta Eguzki Begi Ikastolan.
- Prestakuntza berritzeguneetan: bi ikastaro Zaraton eta bat Ortuellan.
- Autismoari buruzko oinarritzako ikastaroa profesional berrientzat.
- Prestakuntza Deustuko Unibertsitatean, Inklusioari eta Ezintasunari buruzko Masterra.
- Prestakuntza familiei laguntzeko eta aisialdi eta denbora libreko koordinatzaileentzat.
- Autismo España erakundearen azterlan batean parte hartu genuen AEN duten pertsonen zahartze prozesuari buruz.
- Sentsibilizazio-hitzaldiak ikastetxe desberdinetako ikasleei.

AEN duten pertsonen laguntzeko hastapen-ikastaroa (barne-ikastaroa).

Ikastaroak 2012an hasi ziren. Beren helburu nagusia da APNABIn hasten diren profesional berriei prestakuntza ematea, behar dituzten ezagutzak, oinarritzako gaitasunak eta jarduerak izan ditzaten, Autismoaren Espektroko Nahasteak dituzten pertsonak ulertzeko eta eguneroko bizitzako egoeretan eta ingurune desberdinetan esku hartzeko.

2015ean goitik behera aldatu genituen, formatu berrizaille bat emanaz. Erakundeko kide izan nahi duten pertsona guztiei zuzentzen zaizkie, eta teoria eta praktika konbinatzen dituzte. 37 lagunek parte hartu dute (14 gizon eta 23 emakume) eta 721 ikastordu eman ditugu guztira.

PRESTAKUNTZA

Parte-Hartzea eta Garapen Profesionala

Praktikak APNABI Autismo Bizkaian - 2015

2015ean zehar 55 lagunek egin dituzte praktikak APNABIn, 48 emakumek eta 7 gizonek.

APNABIk lankidetzak hitzarmenak dauzka sinatuta prestakuntza erakunde hauekin:


- ARDURADUN ESKOLA.
- ASOCIACIÓN MARGOTU - MARGOTU ELKARTEA.
- C. F. O. SANITARIO INTERLAKEN.
- C2B CAMPUS TO BUSINESS.
- CEBEK - Confederación Empresarial de Bizkaia.
- CPES CRUZ ROJA BHIP.
- CPES SAN LUIS BHIP.
- EDE FUNDAZIOA.
- GRUPO SERVICIOS SOCIALES INTEGRADOS, S. COOP.
- IEFPS. TARTANGA G.B.L.H.I.
- IEFPS NICOLÁS LARBURU GLBHI.
- IES BOTIKAZAR BHI.
- IES ESKURTZE BHI.
- IES IBARREKOLANDA BHI.
- IMPLIKA.
- MONDRAGON UNIBERTSITATEA.
- SAN JOSÉ DE CALASANZ.
- SERVICENTRIC, S. L.
- UNED.
- UNIVERSIDAD DE DEUSTO.



Eta tituluak:

- HEZKUNTZA BEREZIKO MAISU-MAISTRA TITULUA.
- PEDAGOGIA TERAPEUTIKOA.
- HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK DITUZTEN IKASLEENTZAKO ARRETA.
- MENPEKOTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONENTZAKO ARRETA.
- MENPEKOTASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO ARRETA SOZIO-SANITARIOA.
- GIZARTE HEZKUNTZA.
- EUSKAL FILOLOGIA.
- ADMINISTRAZIO-KUDEAKETA.
- GIZA BALIABIDEEN KUDEAKETA INTEGRATUA.
- GIZARTERATZEA ETA EZINTASUNA.
- GIZARTERATZEA.
- H.P.B. MASTERRA.
- LANEKOAK EZ DIREN PRAKTIKA PROFESIOALEN MODULUA.
- DENBORA LIBREKO BEGIRALEA.
- PSIKOLOGIA.

GESTIÓN Y ADMINISTRACIÓN KUDAKETA ADMINISTRAZIOA



OCIOY TIEMPO LIBRE ASIALDI DENBORA LIBREKO



APOYO A FAMILIAS FAMILIEI LAGUNTZEKO




CONSULTAS KONTSULTAK




955 FAMILIAS FAMILIAK

ATENCIÓN DIURNA EGUNEKO ARRETA




HOGARES DE ADULTOS HELDU EGOITZA




HOGARES VIDA SEMI INDEPENDIENTE ETXE ERDI-INDIPENDIENTEA



HOGARES DE MENORES ADINGABEEN EGOITZA



EDUCACIÓN COLEGIO ALDAMIZ HEZKUNTZA ALDAMIZ IKASTETXEA



EDUCACIÓN EN SEGUIMIENTO ESCOLAR HEZKUNTZA SEGIMENDUA



SOCIOLABORAL EMPLEO Y FORMACIÓN ENPLEGU ETA FORMAKUNTZA





APNABik autismoa duten pertsonentzat egiten duen lana ez litzateke posible izango kolaboratzaile eta babeslerik gabe. Zerrenda luzea da: bazkidetutako familiak, boluntarioak eta langileak, erakunde publiko eta pribatuak... guztiek laguntzen digute gure lanean, proiektu desberdinak finantzatuz. Mila esker, denei. Jarraian zerrendatuta daude garrantzitsuenak, ordena alfabetikoan:

- AUTOBUSES URBANOS DE BILBAO.
- AUZO LAGUN, S.COOP.
- AYUNTAMIENTO DE BILBAO.
- AYUNTAMIENTO DE DURANGO.
- AYUNTAMIENTO DE GETXO.
- BASTERO LAISEKA, JOSÉ.
- BBK OBRA SOCIAL.
- BILBOTOUR, S.L.
- CAIXA OBRA SOCIAL.
- DAMAS DE GORLIZ.
- DFB DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA DEPARTAMENTO DE ACCIÓN SOCIAL.
- DFB DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA DEPARTAMENTO DE CULTURA.
- EL CORREO.
- FAMILIAS ASOCIADAS.
- FARMACIA BEITIA COBO.
- FEDERACION VASCA DE ASOCIACIONES A FAVOR DE LAS PERSONAS CON DISCAPACIDAD INTELECTUAL (FEVAS).
- FUNDACIÓN ONCE PARA LA COOPERACIÓN E INCLUSIÓN SOCIAL DE PERSONAS CON DISCAPACIDAD.
- FUNDACIÓN CARMEN GANDARIAS.
- GOBIERNO VASCO DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA.
- GOBIERNO VASCO DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES.
- GOBIERNO VASCO DEPARTAMENTO DE SALUD.
- HOBETUZ.
- IKEA.
- LANBIDE SERVICIO VASCO DE EMPLEO.
- LOTERIAS BETES. ADMINISTRACIÓN DE LOTERIA Nº 3 DE BARAKALDO.
- MINISTERIO SANIDAD, SERVICIO SOCIAL E IGUALDAD.
- SAINZ DE LA MAZA, ANA M^a.
- TRIPARTITA.
- UNIVERSIDAD DE DEUSTO.
- VICRILA VIDRIERA Y CRISTALERIA DE LAMIACO, S.A.



Pintor Antonio Guezala 1-2 bajo
48015 Bilbao

Tel: 944 755 704
E-mail: info@apnabi.org

www.apnabi.org

Memoria hau eskuragarri dago gazteleraz
eta euskaraz www.apnabi.org atarian.



ENPLEGU ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN



OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación Foral
de Bizkaia

Gizarte
Ekintza Saila
Departamento
de Acción Social